

#17

07/2024

# Lezon

UDAL ALDIZKARIA —  
REVISTA MUNICIPAL

ALE BEREZIA



DESCARGATU ETA  
IRAKURRI ALDIZKARIA  
ZURE MUGIKORREAN  
DESCARGA Y LEE LA  
REVISTA EN TU MÓVIL

3/ Elkal Zainduz Lezo \_\_\_\_ 7/ Urteko balorazioa Balance anual \_\_\_\_ 14/ Babes  
ofizialeko etxebizitza Vivienda de protección oficial

7/

## LEGEINTZALDIKO LEHEN URTEKO BALANTZE POSITIBOA

BALANCE POSITIVO DEL  
PRIMER AÑO DE LEGISLATURA





## GOBERNANTZA IREKI, ZABAL ETA PARTE HARTZAILEA

Mikel Arruti Salaberria, Lezoko Alkatea

2023. urteko ekainaren 17an zer egin zenuten askok ez duzue jakingo. Urteko beste egun arrunt bat izango zen, ziurrenik. Guk oso ongi gogoratzen dugu egun hori. Oso egun berezia izan zen: ilusioa, urduritasuna, ardura, poza, negarra, irribarea... Sentimendu eta egoera horiek guztiak bizi izan genituen.

Egun horretan hartu genuen zinegotzi kargua eta Lezoko alkate izendatzearen ohorea izan nuen. Urte betea izan da. Goiz hasi eta berandu bukatzen diren egun asko izan dituela ez dugu ukatuko, baina gaztik baino gozotik dezente gehiago izan du. Urte zirrargarria izan da. Mila esker, berriro ere, gugan jarri zenuten konfiantzagatik.

Oso presente dugu konfianza hori ez dugula baldintza gabea. Ez dela gure jabetzakoa. Eguneroko lanaren eta egiteko moduaren bidez berritu eta irabazi behar dugula. Eguneroko lanean apaltasunez aritzea, gobernantza ireki, zabal eta parte hartzailean sakonduz. Egiteko modu horretan sinisten dugu eta abiatutako bide horretan jarraituko dugu. Bidea guztiok elkarrekin eginez. Guztion artean komunitate bat osatuz. Lezoar izatearen harrotasuna zabalduz.

### GOBERNANZA ABIERTA, AMPLIA Y PARTICIPATIVA

La mayoría de la gente no sabréis lo que hicisteis el 17 de junio de 2023. Probablemente sería otro día más del año. Nuestro grupo recuerda muy bien ese día. Fue un día muy especial: ilusión, nervios, responsabilidad, alegría, llantos, sonrisas... Vivimos todos esos sentimientos y situaciones.

Ese día asumimos los cargos de concejalía y tuve el honor de ser nombrado alcalde de Lezo. Ha sido un año completo. No negaremos que ha tenido muchos días que empiezan temprano y terminan tarde, pero han sido muchísimos más los días soleados que los días oscuros. Ha sido un año emocionante. Gracias, una vez más, por la confianza que depositasteis en nuestro grupo.

Tenemos muy presente que esa confianza no es incondicional. Que no es de nuestra propiedad. Que debemos de renovar y ganar a través del trabajo diario y de la forma de hacer. Humildad en el trabajo diario, profundizando en la gobernanza abierta, amplia y participativa. Creemos en esa forma de hacer y seguiremos en ese camino emprendido. Recorriendo el camino con la gente. Formando una comunidad entre todos y todas. Extendiendo el orgullo de ser lezoarras.

# ELKAR ZAINDUZ LEZO: MISIO BAT, 5 ERRONKA ETA 51 EKINTZA



EH Bilduren gobernu taldeak abian jarritako Legegintzaldi Plana 4 urtetarako bide-orria da. Ongizatea, Elikadura eta Energia Burujabetza, Euskara, Oinezko Lezo berde eta urdina eta Herri Bizia ditu helburu.

2023-2027 Legegintzaldi Plana, udal gobernuko kideen eta teknikarien artean burututako prozesuaren ondorio da. Hausnarketa prozesu bide luzea egin du, ideia trukaketa aberatseko eta argigarria, non herritarrek ere euren kezkak azaltzeko aukera izan duten.

Legegintzaldi Plana osatzeko bidean, udal gobernuko kideek hainbat elkarrizketa egin zituzten herritarrekin, eta Udaletik inuesta zabala bideratu zen (360 herritarrekin) euren beharren, kezken eta nahien berri jasotzeko.

## MISIO BAT

Udaletxe batek herritarren azalean jarri behar du eta hori da Legegintzaldi Planarekin egin dena. Lezo herri koxkorra da eta hori da bere indarguneetako bat, denak elkar ezagutzen dutelako, espazio bera partekatzen dutelako. Komunitate baten parte sentitzen direlako. Bainan herria ez da herri sentimendu hori elkar zaintzeko erabiltzen ez bada.

Elkar zaintzatik dator ongizatea eta ongizatea duen herria herri zoriontsua izango da. Hori da Legegintzaldi Planaren helburu nagusia: enpatiatik komunitatea eraikiz pozik bizi den herri koxkorra izatea.

## 5 ERRONKA,

Legegintzaldi Planak 5 erronka identifikatu ditu definitutako misio hori lortu ahal izateko: ongizate emozionala; elikadura eta energia burujabetza; Lezo euskalduntzea; oinezkoen Lezo berde eta urdina; eta, herri bizia eraikitza.

Legegintzaldi Plana gobernu taldearen bide-orria izango bada, gardentasun ariketa bat egiteko balioko badu eta fiskalizaziorako tresna ere izango bada, beharrezko da erronka horiek definituko dituzten helburu zehatz eta neurgarriak finkatzea.

Ongizate emozionalari dagokionez, berau gero eta erronka handiagoa

bihurtzen ari da gure gizarte eredutan. Erronka horri erantzuteko beharrezko da feminismoak dakaren zaintza ikuspegia kontuan hartzea, eta haurren zein gazteen ongizate emozionalean arreta berezia jartzea.

Elikadura eta energia burujabetzari dagokionez, Lezo Gipuzkoa mailan nekazaritza ekologikoa lantzen den azalera handienetakoia izanik, bertako nekazaritza ekoizpenean erreferente bihurtzea da helburu, herri gunea eta landa eremua elkarlotuz. Era berean, jasangarritasunaren bidean sakonteko, energia trantsizioaren bidean lehen urratsak ematea.

Euskara da hirugarren erronka. Euskararen egoerak kezka sortzen du, eta, beraz, Lezorentzat ezinbesteko erronka da euskararen erabilera handitzeko urratsak egitea. Zehazki 2027rako Lezoko euskararen erabilera ehuneko 5 puntu handitza (% 29tik % 34ra) eta herritarren atxikimendu maila indartzea dira helburuak.

Lezo bi errepide eta portu industrial batek zatikatutako herria izanik, ezinbesteko da egoera horri buelta emateko ekimen zuzentzaileak abian jartzea. Oinezkoen Lezo berde eta urdina lortzeko, 2027rako, oinezko eta bizikletzako guneak % 75 handitzea

aurreikusten du Legegintzaldi Planak. Baita Lezoko 70.000 m<sup>2</sup> ingurune natural birgaitzea, lasaitasunerako eta jolaserako guneak sortuz.

Azken erronkak, Herri Biziak, herri izaera sendotzeari erantzun nahi dio.

Identitate propioa duen herria izateko, pertsonen arteko ezagutza, herri-atxikimendua eta parte-hartzea oinarri izango duen komunitatea eraikitzeko. 2027rako parte-hartze komunitarioaren ehunekoa 3 puntu handitzea (% 16tik % 19ra) du helburu.

## 51 EKINTZA

ONGIZATEA	ELIKADURA ETA ENERGIA BURUJABETZA	EUSKARA	OINEZKOEN LEZO BERDE ETA URDINEAN	HERRI BIZIA
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Zaintza ekosistema osatu.</li> <li>– Berdintasun kontseilua sortu.</li> <li>– Emakumeen txokoa eratu.</li> <li>– Indarkeria matxitaren kontrako ekintza plana egin.</li> <li>– Lezoko haur eta gaztekin ongizate emozionala landu.</li> <li>– Haur parkeak egokitzeko plana egin.</li> <li>– Etxe hutsak merkatutzeko etxeko jabe eta erabiltzaleekin prozesua burutu.</li> <li>– Belaunaldi arteko ekimenak sustatzeko mahai eratu.</li> <li>– Jubilatu elkartea egokitu.</li> <li>– Muittujakin ekimenta abiatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Urrullo baseria elikadura subirnotasun zentro bihurtu.</li> <li>– Agroaldea garatu eta indartzeko GFA eta Behemendirekin elkarlan mahaia sortu.</li> <li>– Antxillastegi eremua agroaldeara batu.</li> <li>– Lezoko energia komunitatea sustatu.</li> <li>– Trantsizio energetikorako plana idatzi.</li> <li>– Bertako komertzioetan bertako produktuak saldu.</li> <li>– Xoxolurreko lur eremuak eskuratu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Euskara sustatzeko plan estrategikoa egin.</li> <li>– Euskara ardatz, kulturartekotasuna landu.</li> <li>– Aisialdian euskara sustatzeko ituna egin.</li> <li>– Gazteen ahozkotsuna landu.</li> <li>– Euskararen familia transmisioa suspertu.</li> <li>– Merkataritza euskalduntzeko prozesua landu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Lezoko industrialderako trafikoa herrigunetik kanporatu.</li> <li>– Lezon parking disuasorioak eraiki.</li> <li>– Mantenu plana burutu.</li> <li>– Altamira parkea birgaitu.</li> <li>– Xoxolur, Pisbe eta Zubitzoko eremuak birgaitu.</li> <li>– Donibane rako bidea portutik bideratu.</li> <li>– Jaizkibel hiribidea kaletartu.</li> <li>– Mugikortasun plana garatu.</li> <li>– Garraio publikoaren azterketa egin.</li> <li>– Lezoko irudi-paisaien eragitea.</li> <li>– Jaizkibelgo basoak berreskuratu.</li> <li>– Gaintxurizketako pasarela garatu.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Erabilera anitzeko zentro zibiko sozialeko proiektua garatu.</li> <li>– Merkataritza eta bizitza komunitarioa aktibatzeko plana burutu.</li> <li>– Lezoko harrera-plana egin.</li> <li>– Zer da Lezo? Lezoko identitate komunitarioa eraiki.</li> <li>– Lezoko gobernan-tza sistema garatu.</li> <li>– Lezoko Memoria historikoa transmititu.</li> <li>– Lezoko Agora topagunea sortu.</li> <li>– Elkar-ezagutza eremuak egokitu.</li> <li>– Udal eraikina irisgarritasunerako berritu.</li> <li>– Udala-herritarak komunikazioa sustatu.</li> <li>– Lezoko Herri hedabide berria sortu.</li> <li>– Udal Zerbitzuen katalogoa burutu.</li> </ul>



## ELKAR ZAINDUX LEZO: UNA MISIÓN, 5 RETOS Y 51 ACCIONES

El Plan de Legislatura diseñado por el equipo de gobierno de EH Bildu guiará la hoja de ruta de los próximos cuatro años. Los pilares del plan son los siguientes: bienestar, soberanía alimentaria y energética, euskera, Lezo peatonal verde y azul y Herri Bizia.

El Plan de Legislatura 2023-2027 es consecuencia de un proceso donde ha participado el equipo de gobierno municipal y personal técnico del ayuntamiento. Ha sido fruto de un largo periodo de reflexión e intercambio de ideas, en el que la ciudadanía también ha tenido la oportunidad de expresar sus inquietudes.

Durante el proceso de elaboración, integrantes del gobierno municipal se han entrevistado con la ciudadanía y, desde el Ayuntamiento, se ha compartido una encuesta con 360 personas para conocer sus necesidades, inquietudes y deseos.

### NUESTRA MISIÓN

Toda institución debe trabajar por y para la ciudadanía, ponerse en su piel. Y ese ha sido el objetivo del Plan de Legislatura. Lezo es un pequeño y acogedor municipio, es una de sus características principales, donde todo el mundo se conoce y comparte el mismo espacio, donde se sienten parte de una comunidad, donde todas las personas se respetan y velan por el bienestar del prójimo. Se trata de un punto de unión que nos hace vivir mejor y ser más felices. Y, ese es el objetivo principal del Plan de Legislatura: construir comunidad desde la empatía para obtener el mayor bienestar posible.

### 5 RETOS

Para poder alcanzar nuestra misión, el Plan de Legislatura diseñado por el equipo de gobierno municipal ha identificado los siguientes 5 retos: bienestar emocional; alimentación y soberanía energética; euskaldunización de Lezo; Lezo peatonal verde y azul; y, Herri Bizia, o el desarrollo de un municipio activo. Pero, si el Plan de Legislatura va a ser la hoja de ruta del equipo de gobierno, va a servir para hacer un ejercicio de transparencia y va a ser también un instrumento de fiscalización, es necesario fijar objetivos concretos y medibles que definan estos retos. En cuanto al bienestar emocional, se trata de un reto con cada vez mayor presencia en nuestro modelo de sociedad. Para ello, es necesario implementar perspectivas feministas en el modelo de cuidado y prestar especial atención al bienestar emocional tanto infantil como juvenil.

En cuanto a la soberanía alimentaria y energética, siendo Lezo una de las mayores superficies de agricultura ecológica a nivel de Gipuzkoa, se trata de convertirse en un referente en la producción agraria local, vinculando lo urbano y lo rural. Asimismo, para construir un municipio más sostenible, es necesario iniciar la transición energética.

El tercer reto se centra en la normalización del euskera, que está generando incertidumbre y preocupación entre la ciudadanía. Por lo tanto, estamos ante un reto prioritario y fundamental para normalizar y aumentar el uso del euskera en Lezo. El objetivo concreto para el año 2027 es aumentar en 5 puntos el porcentaje de uso, incrementándolo del 29% al 34%, y, por ende, incrementar el grado de adhesión de la ciudadanía.

Lezo es un municipio dividido por dos carreteras y un puerto industrial, por lo que es imprescindible y prioritario activar iniciativas correctoras para endemar esta situación. En aras de desarrollar una municipio peatonal verde y azul para el año 2027, el Plan de Legislatura prevé aumentar en un 75% las zonas peatonales y bidegorris. Y, también, rehabilitar 70.000 m<sup>2</sup> de entorno natural, creando espacios amigables y de ocio.

El quinto y último reto, el de impulsar un Herri Bizia, o, municipio dinámico, pretende consolidar el sentimiento de pertenencia e identidad. Para ello, son necesarios tres pilares: una comunidad compacta, sentimiento de pertenencia y la participación. Queremos aumentar en 3 puntos el porcentaje de participación comunitaria para el año 2027, pasando de un 16% a un 19%.


51 ACCIONES

BIENESTAR	SOBERANÍA ALIMENTARIA Y ENERGÉTICA	EUSKERA	EN LEZO PEATONAL VERDE Y AZUL	LEZO DINÁMICO
<ul style="list-style-type: none"> <li>– Formar un ecosistema de cuidados.</li> <li>– Crear el Consejo de Igualdad.</li> <li>– Activar un espacio para las mujeres.</li> <li>– Elaborar un plan de acción contra la violencia machista.</li> <li>– Atender el bienestar emocional de las niñas, los niños y la juventud de Lezo.</li> <li>– Elaborar el plan de acondicionamiento de parques infantiles.</li> <li>– Iniciar el proceso de comercialización de las casas vacías con las personas propietarias y usuarias.</li> <li>– Constituir una mesa de promoción de iniciativas intergeneracionales.</li> <li>– Adaptar las asociaciones de la tercera edad.</li> <li>– Activar la iniciativa Muitujakin.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Convertir el caserío Urrullo en un centro de soberanía alimentaria.</li> <li>– Crear una mesa de colaboración con la DFG y Behemendi para el desarrollo y fortalecimiento de la agroaldea.</li> <li>– Incorporar el área de Antxillastegi a la agroaldea.</li> <li>– Fomentar la comunidad energética de Lezo.</li> <li>– Redactar un plan de transición energética.</li> <li>– Impulsar la venta de productos locales en los comercios locales.</li> <li>– Adquirir los terrenos de Xoxolur.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Elaborar el plan estratégico de promoción del euskera.</li> <li>– Promover la interculturalidad con el euskera como eje.</li> <li>– Establecer un pacto para la promoción del euskera en el tiempo libre.</li> <li>– Impulsar la cultura oral entre la juventud.</li> <li>– Estimular la transmisión familiar del euskera.</li> <li>– Facilitar el proceso de euskaldunización del comercio.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Expulsar del casco urbano el tráfico generado por el polígono industrial.</li> <li>– Construir párkings disuasorios en Lezo.</li> <li>– Implementar el plan de mantenimiento.</li> <li>– Rehabilitar el parque Altamira.</li> <li>– Rehabilitar las zonas de Xoxolur, Pisbe y Zubitxo.</li> <li>– Habilitar el camino a Donibane por el puerto.</li> <li>– Bulevarizar la avenida de Jaizkibel.</li> <li>– Desarrollar el plan de movilidad.</li> <li>– Realizar un estudio del transporte público.</li> <li>– Influir en el paisaje visual.</li> <li>– Recuperar los bosques de Jaizkibel.</li> <li>– Desarrollar la pasarela de Gaintxuri-zketa.</li> </ul>	<ul style="list-style-type: none"> <li>– Desarrollar el proyecto de centro cívico social polivalente.</li> <li>– Elaborar un plan para activar el comercial local y la vida comunitaria.</li> <li>– Elaborar el plan de acogida de Lezo.</li> <li>– ¿Qué es Lezo? Construir nuestra identidad comunitaria.</li> <li>– Desarrollar nuestro sistema de gobernanza.</li> <li>– Transmitir nuestra Memoria histórica.</li> <li>– Crear el punto de encuentro Agora.</li> <li>– Proporcionar espacios de conocimiento mutuo.</li> <li>– Reformar el ayuntamiento para que sea más accesible.</li> <li>– Fomentar la comunicación con la ciudadanía.</li> <li>– Crear un nuevo medio público de comunicación.</li> <li>– Elaborar el Catálogo de Servicios Municipales.</li> </ul>



## LEGEGINZALDIKO LEHEN URTEKO BALANTZE POSITIBOA

EH Bilduren gobernu taldeak positibotzat jo ditu kudeaketaren lehen hamabi hilabeteak. Udal barrura begirako jardueretan egin behar izan duen ahalegina handia izan den arren, norabide argi bat ezartzea, eta bide horretan lehen urratsak egiten hastea lortu da.



*Udal gaur egungo eta etorkizuneko herritarren beharrei erantzuteko prestatzen ari da; besteak beste, Udal antolaketa egokituz eta Udal zerbitzuen kontratuak eguneratzu.*



*Zergak eta udal-aurrekontua egokitu dira, bai aberastasuna behar bezala banatzeko, bai Legegintzaldi Planaren erronkei aurre egiteko.*



*Udal gobernuak eragileekin eta herritarrekin batera egiteko bidea abiatu du. Herri eraagineen eta Udalaren lankidetza proiektuen bidez, elkar zainduko duen Lezo eraikitzeko eta herri atseginagoa egiteko.*

12 hilabete pasa dira dagoeneko EH Bilduko Mikel Arruti Lezoko alkate izendatu zutenetik, baita udalbatza eratu eta martxan jarri zenetik. Beraz, bidaia balorazioa egiteko garaia, baita lehen urte honetan Legegintzaldi Planean jasotzen diren 5 ardatz nagusien bilakaera zein izan den ikusi eta aurkezteko: herritarren ongizate emozionalaren hobetza; Lezo herri berde eta urdin bihurtza; Lezo kulturalki zein sozialki herri bizi bihurtza; elikadura eta energia burujabetza lortzea; eta, herrian, euskararen erabilera sustatzea eta hobetza.

### UDALARENTZAT NORABIDE ARGIA BAT

Udalaren urte honetako norabidea definitzeko, herritarrengana hurbiltzeko egindako ahalegina azpimarratu behar da. Lehen pausoak, herritarren beharren, arazoak eta lehentasunen berri jasotzeko inkesta zabala egitea izan zen eta, oinarri hori aintzat hartuta, Legegintzaldi Plana osatu zuten misio bat eta bost erronka jasotzen dituen norabide-mapa egin zen. *Misioa: enpatiatik komunitatea eraikitzen pozik bizi den herri koxkorra osatzea.*

Legegintzaldi Planean identifikaturiko erronka horiek garatzeko proiektu eta neurri asko dagoeneko martxan dira, baina horiek abiarazteko, gobernu taldeak, lehenik eta behin, udal zerbitzu nagusiei lotutako kontratuak eguneratu behar izan ditu, jada iraungita baitzeuden.

Hala, eguneratu egin dira eraikinak garbitzeko kontratuak, (2021aren abuztutik amaitua), kaleak garbitzeko zerbitzua (2022aren martxotik amaitua), zaborrak biltzeko kontratuak (2022ko abendutik amaitua), lorezaintza zerbitzua (2023ko abuztutik), Plazeta (2023ko abendutik amaituta) eta Aiton Borda tabernaren esleipena.

Udalaren norabidetze-prozesuaren lehen fase honetan, udalaren funtzionamenduan ere aldaketak egin dira, batez ere,

langile guztiak ikuspegi orokorra edukitzeko, helburu partekatuak adosteko, eta departamentu desberdinei eragiten dieten gaiak egoki koordinatzeko. Zentzu berean, une honetan, antolaketa zein egiturari lotutako moldaketak prestatzen ari dira.

### UDAL-BALIABIDE EKONOMIKOAK HERRITARREN BEHARRERATA EGOKITZEKO NEURRIAK

Udal baliabide ekonomikoak herritarren beharrei erantzuteko, bi tresna nagusi ditu udalak. Batetik, diru baliabideak eskuratzeko zergen ordenantza, eta, bestetik, baliabide horien erabilera zehazten duen aurrekontua.

Lehenari dagokionez, 2020tik tasa eta zerga guztiak (batzuk lehendik ere) izotzta egon direnez, eta bien bitartean KPIak gora egin duenez (% 11a epealdi horretan) Udal zerbitzu egokiak eskaintzeko mugak egin dira. Horren adibide gisa, 2023an zabor-bilketak eta udalaren ur-zerbitzuek 200.000 euroko defizita pilatu zutela da.

Beraz, aberastasunaren banaketa birrorekatzearren ikuspegitik bi neurri nagusi hartu dira. Batetik, zergak eta tasak eguneratzea. Bestetik, gutxien dutenek gutxiago ordaindu ahal izateko, ura, estolderia eta zabor-bilketaren tasetan errenta mailaren araberako hobaria ezarri dira. Bestalde, eta esparru berean eragiteko helburuz, Lezoko errenta mailaren gaineko azterlan bat jarri da martxan hilabete hauetan, eta, uzten dituen emaitzen arabera, ondorengo urteotako zerga ordenantzaren eguneraketak egingo dira.

Aurrekontuei dagokionez, baliabide ekonomikoak legegintzaldi-planak ezarritako misioari eta erronkei erantzutera bideratzeko ahalegina egin da, bai azaroan onartutako aurrekontuan, eta, are nabarmenago, martxoan eginiko egokitzapenean. Arlo arlo aurreikusitako aurrekontu partidak eta horien baitan jasotako egitasmo nagusiak hurrengoak dira:

### Egitasmo nagusiak

**963 mila €**

Lezoko herritarren ongizate emozionala hobetza

Ekintzak: ADIF eraikina, Berdintasun Plana, Haur-parkeak hobetzeko prozesua, Etxebizitza Plana eta tenkatutako eremua-ren katalogazioa, GLL, lezoaren errenta aztertzeko prozesua.

**474 mila €**

Oinezkoentzako Lezo berdea eta urdina

Ekintzak: Altamirako parkea, saneamendua eta estolderia, Gain-txurizketako markesinak, Zubitxo kaleko espaloien irisgarritasuna hobetza.

**215 mila €**

Lezo kulturalki zein sozialki herri bizia bihurtza

Ekintzak: Arraitokiko aurreproiektua eta Karlos Saldise plazako estalkia.

**Teknikaria**

**+ 12 mila €**

Elikadura eta energia subiranotasuna: teknikari bat kontratatzea

Ekintzak: energia plana eta energia komunitatea.

**20 mila €**

Lezon euskararen erabilera sustatzea eta hobetza

Ekintzak: euskararen plan estrategikoa.



**Legealdiko lehen urte honetan egiteko moduak garrantzi handia izan du EH Bilduren gobernu taldearentzat. Gobernantza eredu irekia, zabala eta parte hartzalea izan da udaleko erabaki gune guztieta oposizioan dauden EAJk eta PSEk parte hartu dutelako**

Amaitzeko 2024. urterako aurrekontuari lotutako azken bi datu adierazgarri azpimarratu behar dira: gizarte larrialdiatarako laguntzearako 200 mila euro bideratu direla, Lezoko biztanle bakoitzeko 33 euro; eta Lezoko azpiegiturak txukundu eta hobetzeko inbertsiora, berriz, azken urteotako partida handienetakoan onartu dela: 2,5 milioi euro

#### ERALDAKETA PROZESA ETA GOBERNANTZA EREDUA

Legealdiko lehen urte honetan egiteko moduak garrantzia handia izan du EH Bilduren gobernu taldearentzat, aurreko legealdietan izandako gobernantza ereduarekin alderatuz, arras ezberdina behar zuelako. Gobernantza eredu irekia, zabala eta parte hartzalea izan da azken urte honetakoan, udaleko erabaki gune guztieta EAJk eta PSEk ere parte hartu dutelako, oposizioan egonagatik ere. Bide horretan, udal gobernuak parte hartze prozesu ugari abiarazi ditu hilabete hauetan, hala nola, haur parkeen aldaketa prozesua, Lezo Euskaragarri prozesua, hezkuntza foroa, BIBE proiek-


tua, herrian energia komunitate bat sortzeko proiektua edo herritarren artean zabalduta eta 360 herritarrek erantzun zuten inuesta.

Aipatzeko da ere, gobernukideek herritarreko izan duten hurbiltasuna. Horregatik, herritarrek alkatearekin eta gobernu taldearekin gertuko harremana izateko, zuzeneko kanala ireki dute. Aurrerantzean ere, asteazken arratsaldetan eta ostiral goizetan gobernu taldearekin zuzenean hitz egiteko aukera izango dute. Kanalen irekiera oso probetxugarria izan da, 2024 urtean hogeita hamar bileratik gora izan dituztelako lezoarrek eskatuta. Gobernu talde honen lelo nagusia izan da hau, alegia, jendearengandik eta elkartengandik hurbil egotea, Lezori bizia ematen diotenak eta herria hobekien ezagutzen dutenak direlako.

Herriaren alde eta herriarentzat lan egiten duen gobernu taldeak egungo eta etorkizuneko erronkak bateratu nahi ditu, siglen gainetik, lezoar guztien ongizatea jokoan dagoelako.

## BALANCE POSITIVO DEL PRIMER AÑO DE LEGISLATURA

El equipo de gobierno de EH Bildu ha valorado positivamente los primeros doce meses de gestión. A pesar del esfuerzo que ha tenido que realizar de puertas adentro, se ha conseguido direccionar la gestión e implementar las primeras medidas correctoras.



*El Ayuntamiento se prepara para atender las necesidades de la ciudadanía, las inmediatas y las de largo plazo. Entre ellas, la reestructuración del ente municipal o la actualización de los contratos de los servicios municipales.*



*Se han ajustado los impuestos y el presupuesto municipal, con el objetivo de realizar una distribución de la riqueza más justa o poder activar los retos marcados en el plan de legislatura.*



*Se han puesto los cimientos para construir un municipio en consonancia con las necesidades de las y los agentes sociales y la ciudadanía. Se trata de, implicando a todas las personas, construir un Lezo más amable y solidario.*



Han pasado ya 12 meses desde el nombramiento de Mikel Arruti, de EH Bildu, como alcalde de Lezo, así como desde la constitución y puesta en marcha de la corporación municipal. Por lo tanto, es hora de hacer una valoración y presentar la evolución de los 5 grandes ejes que recoge el Plan de Legislatura para este primer año de mandato: mejorar el bienestar emocional de la ciudadanía; convertir Lezo en un municipio peatonal verde y azul; activar la agenda social y cultural; implementar la soberanía alimentaria y energética; y fomentar y normalizar el uso del euskera.

### EL CAMINO A SEGUIR

Para definir el rumbo adoptado por el Ayuntamiento durante este primer año de mandato, hay que destacar el esfuerzo realizado para acercarse a la ciudadanía. Como punto de partida, se compartió una encuesta para conocer sus necesidades, problemáticas y prioridades. En base a ello, se elaboró un mapa direccional con una misión y cinco retos que derivaron en el Plan de Legislatura.

**Misión: construir comunidad desde la empatía para obtener el mayor bienestar posible.**

Muchos de los proyectos o medidas para implementar los retos identificados en el Plan de Legislatura ya están en marcha. Pero, para ello, el equipo de gobierno ha tenido que actualizar, en primer lugar, los contratos vinculados a los principales servicios municipales, ya que algunos de ellos estaban finalizados. Así, se han actualizado el contrato de limpieza de edificios, finalizado desde agosto de 2021; el servicio de limpieza viaria, que expiraba en marzo de 2022; el de recogida de basuras, finalizado desde diciembre de 2022; el servicio de jardinería, también expirado desde agosto de 2023; Plazeta, que expiraba en diciembre de 2023 y, por último, se ha realizado la adjudicación del bar Aiton Borda.

En esta primera fase del cambio a un nuevo modelo de gestión del Ayuntamiento, también se han introducido cambios en la gestión municipal, sobre todo, para dotar al personal de una

visión global, consensuar objetivos compartidos, y, por último, mejorar la coordinación entre los diferentes departamentos. Con el mismo objetivo, en la actualidad se están aplicando modificaciones tanto organizativas como estructurales.

### MEDIDAS PARA ADAPTAR LOS RECURSOS ECONÓMICOS MUNICIPALES A LAS NECESIDADES DE LA CIUDADANÍA

Para dar respuesta a las necesidades de la ciudadanía, el Ayuntamiento dispone de dos instrumentos principales: la ordenanza fiscal, con la que obtiene recursos económicos, y, el presupuesto, que determina su utilización.

Se han ajustado los impuestos y el presupuesto municipal, con el objetivo de realizar una distribución de la riqueza más justa o poder activar los retos marcados en el Plan de Legislatura.

La congelación de todas las tasas e impuestos desde 2020, en algunos casos con anterioridad, y el incremento del IPC, un 11% en ese periodo, ha repercutido en la prestación de los servicios municipales adecuados, que han sufrido limitaciones. Por poner un ejemplo: la recogida de basuras y los servicios municipales de agua acumularon un déficit de 200.000 euros en 2023. Ante esta situación, y con el objetivo de realizar una distribución más justa de la riqueza, se han tomado dos medidas correctoras. Por un lado, se han actualizado los impuestos y tasas. Y, por otro, se han establecido bonificaciones en las tasas de agua, alcantarillado y recogida de basuras en función del nivel de renta. También se ha iniciado un estudio sobre el nivel de renta del municipio, y, en función de los resultados, se realizarán las actualizaciones de la ordenanza fiscal de los próximos años.

En cuanto al presupuesto, se ha tratado de orientar los recursos económicos para poder implementar la misión y los retos marcados por el Plan de Legislatura, tanto en el presupuesto aprobado en noviembre como, de forma más destacada, en el ajuste realizado en marzo. Las partidas presupuestarias previstas por áreas y los principales proyectos incluidos en las mismas son los siguientes:

### Principales proyectos

963 mil €	474 mil €	215 mil €	Personal técnico + 12 mil €	20 mil €
Mejora del bienestar emocional de la ciudadanía	Lezo peatonal verde y azul	Municipio dinámico tanto cultural como socialmente	Soberanía alimentaria y energética: generar un puesto de trabajo	Mejora y normalización del uso del euskera
<u>Acciones:</u> Edificio ADIF, Plan de Igualdad, Proceso de mejora de parques infantiles, Plan de Vivienda y declarar Lezo Zona Tensionada, AES, análisis de renta de la ciudadanía.	<u>Acciones:</u> Parque de Altamira, saneamiento y alcantarillado, marquesinas de Gaintxuriketa, mejora de la accesibilidad de la acera de la calle Zubitxo.	<u>Acciones:</u> Anteproyecto de Arraitoki y cubierta de la plaza Karlos Saldise.	<u>Acciones:</u> plan de energía y comunidad energética.	<u>Acciones:</u> plan estratégico del euskera

Para finalizar, es necesario subrayar otros dos datos significativos que recoge el presupuesto para el año 2024. Por un lado, la partida de 200 mil euros destinados a las ayudas de emergencia social, 33 euros por habitante; y, por otro, los 2,5 millones de euros destinados a la inversión en la mejora de las infraestructuras de Lezo, así como su acondicionamiento.

#### PROCESO DE TRANSFORMACIÓN Y MODELO DE GOBERNANZA

El modelo de gestión empleado en este primer año de legislatura ha tenido una gran relevancia para el equipo de gobierno de EH Bildu. El modelo anterior no era sostenible, y, era necesario un nuevo modelo de gobernanza muy diferente al de las anteriores legislaturas.

Se trata de un modelo de gobernanza transparente, plural y participativo, que ha contado con la participación del PNV y el PSE en todos los espacios de decisión municipales, aun estando en la oposición. El gobierno municipal ha puesto en marcha numerosos procesos participativos durante estos meses, como el cambio de parques infantiles, Lezo

Euskaragari, foro educativo, proyecto BIBE, creación de una comunidad energética o una encuesta que contó con la participación de 360 personas.

También cabe destacar la cercanía del equipo de gobierno con la ciudadanía. En aras de establecer una relación cercana, tanto con el alcalde como con el equipo de gobierno, se ha establecido un canal directo, donde, a partir de ahora, los miércoles por la tarde y los viernes por la mañana, tendrán la oportunidad de hablar directamente con el equipo de gobierno. Este canal está siendo una herramienta útil y provechosa, ya que en 2024 han tenido más de treinta reuniones a petición de la ciudadanía. Esta cercanía acaba dando sus frutos, por una sencilla razón: las personas que forman la red social de nuestro municipio son las que mejor conocen su realidad, y, por ende, sus necesidades.

El camino a seguir es claro: trabajar por y para el municipio, en una misma dirección, que facilite afrontar los retos del presente y del futuro, porque, por encima de todas las siglas, está en juego el bienestar de toda las personas de nuestro municipio, de Lezo.



**Se ha apostado por un modelo de gobernanza transparente, plural y participativo, que ha contado con la participación del PNV y el PSE en todos los espacios de decisiones municipales, aun estando en la oposición**



Errepidea seguru gurutzatzeko ispilua. Horixe da egin dugun auzo batzar batean jaso dugun eskaera. Nekez jasoko genuen behar horren berri bertako herritarrekin bildu ez bagina. Eta nekez erantzungo genion, hain oinarrizko den herritarren segurtasuna bermatzenko beharrari. Legegintzaldia hasitakoan, egiteko moduetan desberdin jokatzeko konpromisoa hartu genuen: herriarekin eta herriarentzat. Eta parte hartze prozesuak jarri ditugu martxan: haur-parkeak eraldatzeko, euskararen sustapenerako, zahartzaro aktiboa bultzatzeko... Bain Lezoko "ertzetan" dauden auzoei hitz eman genien bezala, euren beharrak ezagutzea falta zitzai gun. Jada hasi gara horretan. Askok adierazi digutenari aurre egin eta inork bere auzoa ahazten du gula pentsatu ez dezan. Ziur ez dugula nahikoa baliabide izango behar guztieei erantzuteko. Bain, batzuetan, bilera hauei esker, hainbeste baliabide eskatzen ez dituen, eta oinarrizko beharrerai erantzuten dieten eskaerak gauzatu ahal izango ditugu: ispilu bat.

Un espejo para cruzar la carretera con seguridad. Esta es la petición que hemos recibido en una asamblea vecinal. Difícilmente hubiéramos conocido esa necesidad si no nos hubiéramos reunido con esas personas. Y difícilmente habríamos respondido a la necesidad, tan básica, de garantizar la seguridad ciudadana. Una vez iniciada la legislatura, nos comprometimos a actuar de forma diferente: con y para el pueblo. Y hemos puesto en marcha procesos participativos: transformación de parques infantiles, promoción del euskera, envejecimiento activo... Pero como prometimos a los barrios situados en las "márgenes" de Lezo, nos faltaba conocer sus necesidades. Pero, ya hemos empezado a responder esas demandas, que nadie piense que olvidamos su barrio. Seguro que no tendremos recursos suficientes para atender todas las necesidades. Pero, a veces, estas reuniones, nos ayudan a materializar demandas que no requieren tantos recursos y que responden a necesidades básicas: un espejo.



EAJk beti lan egin du eta jarraituko du nekaezin lanean gure biztanleen ongizatearen eta gure herriaren garapenaren alde, betiere gure erkidegoaren interes eta beharrei balioa emanez. Nahiz eta EAJk sortutako aurreko proiekturen jarraitutasuna estimatzen dugun, uste dugu funtsezko dela norabide berri bat ezartzea, gure herriaren aurrerapenerako eta garapenerako bidea erakusteko, eta funtsezko da udalak ikuspegি zehatz eta motibatzaile bat artikulatu eta jakinaraztea, konfianza eman eta gure komunitatea helburu berrietara mugiarazteko. EAJk bere kezka plazaratu du azken urteko kultur agendaren aurrean. Gure ustez ezinbestekoa da plan kultural inklusibo bat egitea, guzion beharrei erantzungsdi. EAJk parkeen egoerari, herriaren garbitasun eskasari, Olatzar eta Altzateko babes ofizialeko etxebizitzei, Bekoerrota Kirolegiaren hobekuntzari eta Lezoko anbulatorio berriaren eraikuntzari begira jarraituko du Lezoaren ongizaterako eta bizi-kalitaterako funtsezko zerbitzu eta azpiegiturak baitira.

El PNV siempre ha trabajado y seguirá trabajando incansablemente por el bienestar de nuestros habitantes y el desarrollo de nuestro pueblo, poniendo siempre en valor los intereses y necesidades de nuestra comunidad. Si bien apreciamos la continuidad de proyectos anteriores gestados por EAJ, creemos que es esencial que se marque un nuevo rumbo que muestre el camino hacia el progreso y desarrollo de nuestro pueblo, siendo crucial que el ayuntamiento articule y comunique una visión concreta y motivadora que inspire confianza y movilice a nuestra comunidad hacia nuevas metas. EAJ hace pública su inquietud ante la agenda cultural del último año: "Consideramos vital que se elabore un plan cultural que sea inclusivo y que responda a las diversas necesidades de todos/as. EAJ seguirá vigilante sobre el estado de los parques, la deficiente limpieza del pueblo, las viviendas de protección oficial de Olatzar y de Altzate, así como a la mejora del Polideportivo Bekoerrota, y la construcción del nuevo ambulatorio de Lezo, ya que son servicios e infraestructuras esenciales para el bienestar y la calidad de vida de los/as lezoarras.



Desde el PSE-EE, huyendo de la crítica fácil, hemos realizado una labor de oposición constructiva, cumpliendo con el mandato que los vecinos nos dieron de ser una oposición útil, que arrime el hombro cuando tiene que hacerlo y sobre todo, poniendo nuestra experiencia a disposición del Equipo de Gobierno en aquellas cuestiones que sean coincidentes con nuestro proyecto de pueblo. Así, contaran con nuestro apoyo en todas aquellas actuaciones de regeneración urbana y mantenimiento de los barrios y polígonos industriales que tanto demandan los vecinos y vecinas. Igualmente, contaran con nosotros para que la participación de los vecinos tenga su reflejo en los presupuestos y ordenanzas fiscales. Colaboraremos para servir de interlocutor con otras instituciones – Diputación y Gobierno Vasco- para conseguir financiación o acelerar proyectos ya iniciados en la anterior Legislatura como el nuevo edificio polivalente en Arraitoki, los apartamentos para jóvenes de la calle Aralar, la regeneración del parque de Altamira, la urgente rehabilitación del polideportivo, o la creación de una comunidad energética. Apostamos por un incremento de las ayudas sociales destinadas a los colectivos más vulnerables apostando por aquellos proyectos que incidan en la soledad no deseada de nuestros mayores o la salud mental de la población, así como en tomar decisiones que apuesten, teniendo a las personas como centro de la actuación política, por un pueblo sostenible, generador de oportunidades, inclusivo y seguro y una administración cercana y moderna.

Legegintzaldiaren lehen urtea betetzean, PSE-EE udal taldeik Gobernu Taldearen jardunaren balorazio kritikoa egiten dugu, eta, Lezoko bizilagunen bizi-kalitatea hobetzeko ekinmenik ez dagoela salatu nahi dugu, aurreko legegintzalditik jasotako proiekturen jarraipena egitera mugatu baita talde berria.



## OLATZARREKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZA ESKAERA EGITEKO EPEA UZTAILAREN 11N BUKATZEN DA

Guztira, 57 etxebizitza eraikiko dira, eta, iragarkia ekainaren 11n Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ondoren, izen-estate prozesua irekita dago uztailaren 11ra arte. Etxebizitza horietatik, 24, sustapen pribatuko eta araubide tasatuko babes ofizialekoak izango dira; beste 33ak, aldiz, sustapen pribatuko eta erregimen orokorreko babes ofizialekoak.

Uztailaren 11n itxiko da Udalak Olatzar eremuan eraikiko dituen babes ofizialeko etxebizitza prozeduran parte hartzeko deialdia. 57 etxebizitza eraikiko dira, eta, guztiak, trastelekua eta garajea izango dute. Guztien artean, mugikortasun urria edo adimen-ezintasuna duten pertsonentzako hiru etxebizitza gordeko dira. Era berean, zenbait lehentasunen arabera, beste 27 gordeko dira.

Eskerak Lezoko Udaleko Herritarrentzako Arreta Zerbitzuaren bulegoan aurkeztu behar dira, edo, telematikoki, egoitza elektronikoaren bitartez ([www.lezo.eus](http://www.lezo.eus)). Izena emateko eskaera eredu ofiziala aurkeztu beharko da, udal-egoitza elektronikoan eskura dagoena.

Behin betiko zerrendan onartua egoteko eta etxebizitza bat eskuratzeko aukera izateko, baldintza hauek bete beharko dira:

- Bizikidetza unitateen kasuan, gutxienez kide bat adinez nagusia izatea.
- Aurreko bi urteetan beste etxebizitzarik ez izatea, bai jabetzan, osorik edo azalera-eskubidez, edo dagoeneko duten etxebizitzak gutxieneko biziga-

rritasun baldintzak betetzen ez dituenean,

- Baldintzetan eskatutako urteko diru-ponderatuen gutxieneko eta gehieneko betetzea.
- Lezon etenik gabe erroldatuta egotea, gutxienez, aurreko 2 urteetan.
- Lezon 10 urtez erroldatua egon izana, etenik gabe edo etenaldiiekin.
- Azken bost urteetan Lezoko udalerrrian lanean aritu izana eta egun kontratau indarrean edukitzea.

Etxebizitza guztiak Lezon bizi diren esleipen-hartzaileei esleitzen ez bazaizkie, bigarren zerrenda bat egingo da Oarsoaldeko edozein udalerritan (Errenerria, Oiartzun edo Pasaia) erroldatuta dauden eskatzaileekin.

### ETXEBIZITZEN BANAKETA

Araubide tasatuko etxebizitzak 24 dira, 66 eta 87 metro karratu erabilgarri artekoak. Horietako bat, egokitua da; beste zortzi etxebizitza hiru logelakoak dira, eta, gainontzeko hamabostak, bi logelakoak.

Etxebizitza hauen kasuan, honako kupo hauek gordeko dira lehentasunez:

- Etxebizitza bat, mugikortasun urria

edo adimen-ezintasuna duten pertsonentzako (bi logelakoak).

- Bi, familia guraso bakarreko pertsonentzako (etxebizitza bat hiru logelako eta bestea, bikoa).
- Beste bat, genero-indarkeriaren biktima den emakumearentzako (bi logelakoak).
- Eta, zortzi, 18 eta 35 urte dituzten gazteentzako (bost bi logelakoak eta hiru, hirukoak).

Geratzen diren hamabiak (8 bi logelakoak eta 4, hirukoak) kupo orokorrera bideratuko dira.

Etxebizitza hauen salmenta prezioa, 181.720 euro (66 metro karratukoa) eta 225.354 euro (87 metro karratukoa) artekoa da.

Erregimen orokorreko etxebizitzak, berri, 33 dira, 63 eta 90 metro karratu artekoak. Horietako bi, egokitutakoak dira; beste 7 etxebizitza hiru logelakoak dira, eta, gainontzeko 24ak, bi logelakoak.

Etxebizitza hauen kasuan ere, honako kupo hauek gordeko dira lehentasunez:

- Bi etxebizitza, mugikortasun urria edo adimen-ezintasuna dutenentzat.

- Hiru, familia guraso bakarreko pertsonentzako (etxebizitza bat hiru logelakoa eta beste biak, bikoak).
- Beste bat, genero-indarkeriaren biktima den emakumearentzako (bi logelakoa).
- Eta, hamabi, 18 eta 35 urte dituzten gazteentzako (bederatz bi logelakoak eta hiru, hirukoak).

Geratzen diren hamabostak (12 bi logelakoak eta 3, hirukoak) kupo orokorrera bideratuko dira.

## **EL PLAZO PARA SOLICITAR UNA VIVIENDA DE PROTECCIÓN OFICIAL EN OLATZAR FINALIZA EL 11 DE JULIO**

**Se construirán 57 viviendas y, tras la publicación del anuncio el 11 de junio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, el proceso de inscripción está abierto hasta el 11 de julio. De estas viviendas, 24 serán de protección oficial de promoción privada y régimen tasado, mientras que, las otras 33, serán de protección oficial de promoción privada y régimen general.**

El próximo jueves 11 de julio se cerrará el plazo para solicitar una vivienda de protección oficial que el Ayuntamiento construirá en la zona de Olatzar. Todas las viviendas contarán con trastero y garaje y se reservarán tres, para las personas con movilidad reducida o discapacidad intelectual, y, otras 27, en función de otras prioridades.

Las solicitudes deben presentarse en la oficina del Servicio de Atención Ciudadana del Ayuntamiento de Lezo o telemáticamente ([www.lezo.eus](http://www.lezo.eus)) y es obligatorio presentar el modelo oficial de solicitud de inscripción disponible en la sede electrónica municipal.

Para ser admitido en la lista definitiva y poder acceder a una vivienda se deberán cumplir los siguientes requisitos:

- En el caso de unidades convivenciales, se exigirá que al menos un persona sea mayor de edad.
- No disponer de otra vivienda en los dos años anteriores, bien en propiedad, plena o superficiaria, o, que la vivienda que se disponga no alcance las condiciones mínimas de accesibilidad.
- Respetar los límites mínimos y máximos de ingresos anuales ponderados.

Etxebizitza hauen salmenta prezioa, 139.304 € (63 metro karratuko) eta 183.679 € (87 metro karratuko) artekoa da.

## **ZOZKETA IRAILEAN**

Eskaerak aurkezteko epea bukatzen deean, behin behineko zerrenda argitaratuko da eta bost egun naturalez egongo da ikusgai Udaleko iragarki-taulan eta webgunean. Bost eguneko epe horretan baztertuek erreklamazioak aurkezteko aukera izango dute. Egindako erreklamazioak aprobaturik, etxearen jabea baimena emanda dago, eta, ondoren, lehen erabilera baimena tramitatuko da. Ondo bidean, etxebizitzak 2025ean bukatzea aurreikusten da.

mazioak ebatzi ondoren, behin betiko zerrendak argitaratuko dira.

Momentuz, 276 pertsonek bete dute Olartzarreko babes ofizialeko etxebizitza bat eskuratzeko eskaera orria. Zozketa eguna oraindik ez da zehaztu, baina irailean zehar egingo da. Gaur gaurkoz, etxebizitza eraikitzeo obra baimena emanda dago, eta, ondoren, lehen erabilera baimena tramitatuko da. Ondo bidean, etxebizitzak 2025ean bukatzea aurreikusten da.

- Empadronamiento ininterrumpido en Lezo durante, al menos, los 2 años anteriores.
- Empadronamiento en Lezo durante 10 años, de forma ininterrumpida o con interrupciones.
- Haber trabajado en el municipio de Lezo durante los últimos cinco años y mantener en vigor el contrato.

En el hipotético caso de que no se adjudiquen todas las viviendas a las y residentes en Lezo, se prevé establecer una segunda lista con solicitantes empadronados el algún municipio de Oarsoaldea.

## **TIPOLOGÍA DE LAS VIVIENDAS**

Las viviendas de régimen tasado son 24, de entre 66 y 87 metros cuadrados útiles. Una de ellas es adaptada; 8, de tres dormitorios y, las 15 restantes, de dos. Se reservarán preferentemente los siguientes cupos:

- Una vivienda (de dos habitaciones), para las personas con movilidad reducida o discapacidad psíquica
- Dos, para familias monoparentales (una de tres habitaciones y la otra de dos).
- Otra (de dos habitaciones), para mujeres víctimas de violencia de género
- Y ocho, para jóvenes que tengan entre 18 y 35 años el último día de inscripción (5 de dos habitaciones y, otras, tres, de tres).

Las otras doce restantes (8 de dos habitaciones y, otras 4, de tres) se destinarán al cupo general.

El precio de venta de estas viviendas oscila entre 181.720 euros (66 metros cuadrados) y 225.354 euros (87 metros cuadrados).

Por su parte, las viviendas de régimen general son 33, de entre 63 y 90 metros cuadrados. Dos de ellas son adaptadas, otras 7, de tres dormitorios y, las 24 restantes, de dos dormitorios. Se reservarán preferentemente los siguientes cupos:

- Dos viviendas (de dos habitaciones), para las personas con movilidad reducida o discapacidad psíquica
- Tres, para familias monoparentales (una de tres habitaciones y las otras, de dos).
- Otra (de dos habitaciones), para mujeres víctimas de violencia de género
- Doce, para jóvenes que tengan entre 18 y 35 años el último día de inscripción (nueve de dos habitaciones y, otras, tres, de tres habitaciones).

Las otras quince restantes (12 de dos habitaciones y, otras, 3, de tres) se destinarán al cupo general.

El precio de venta de estas viviendas oscila entre 139.304 euros (63 metros cuadrados) y 183.679 euros (87 metros cuadrados).

## **SORTEO EN SEPTIEMBRE**

Una vez finalizado el plazo de presentación de solicitudes, se publicará la lista provisional, que estará disponible durante cinco días naturales en el tablón de anuncios y en la web del Ayuntamiento (las personas excluidas podrán presentar alegaciones en el plazo de cinco días).

Después, se publicarán las listas definitivas y se realizará el sorteo en septiembre. Hasta la fecha, se han presentado 276 solicitudes, y, si todo transcurre sin sobresaltos, se estima que las obras finalicen durante el próximo año.

# JAIALDIA

ABUZTUA – IRAILA 2024

# Kilometro Kilometro



HURBILASUNAREN KULTURA



▼  
Programazio  
osoa  
Toda la  
programación



ABUZTUA

**23**

20:00

**¡Dale  
Ramón!**

Trapu Zaharrak

Lopene plazan\*

ABUZTUA

**24**

22:00

**Ubu errege**

Orratx! Antzerki Taldea

Lezo Herri Eskolako  
patioan

ABUZTUA

**30**

20:00

**Aha! Circo**

Alas Circo Teatro

ABUZTUA

**31**

23:00

**Geure(r)a**

Harrobia

Santo Kristo  
Basilikaren paretan

IRAILA

**15**

19:00

**Haurres-  
kolari**

Tio Teronen Semeak

Goiko plazan

\*eguraldi txarra eginez gero Lezo Herri Eskolako patioan